

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko otsailaren 25a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00001. Foru-lege proiektua, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/ITP-00006. Interpelazioa, industriaren arloko politikari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (5. or.).

—11-25/ITP-00007. Interpelazioa, Nafarroa Markari buruzko estrategiari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (6. or.).

—11-25/MOC-00005. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak onetsi du (6. or.).

—11-25/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako gazteriarren kultur ekoizpena bultza dezan, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea (7. or.).

—11-25/MOC-00016. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita abian jar ditzan LGTBifobiaren aurkako kanpainak, eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak LGTBifobiaren aurka egiten dituen kanpainak sar ditzan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua edo Nafarroako Gobernua federazioekin edo klubekin lankidetzan aritzen den ikusgarritasun handiko kirol lehiaketetan eta ekitaldietan. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea (7. or.).


F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00078. Galdera, Sarrigurenen 4.000 etxebizitza publiko eraikitzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (8. or.).

1

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYYEQCJQE64	Página	1/20



- 11-25/POR-00079. Galdera, La Manada izenez ezagutzen den kasuko zigorrak murrizteko eskaria dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00080. Galdera, Nafarroan pobrezia buruzko datuak zuzentzeko neurriei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00081. Galdera, Nafarroako ubide fotovoltaiakoari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00082. Galdera, Eraikuntzari aplikatutako Robotika eta Industrializazio Zentro Nazionalari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00083. Galdera, Maristetako etxebizitza babestuen prezioari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00084. Galdera, 2025-2028 aldirako Enplegu Planari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00085. Galdera, beharrezkoa den energia-trantsizioa zertan den jakiteko. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00086. Galdera, lan-istripuen kopurua murrizteko politikak egite aldera Gobernuak daukan konpromisoari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00087. Galdera, Estatu Batuek nekazaritzako produktuei muga-zergak jartzeari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00088. Galdera, Estatu Batuetako muga-zergek Nafarroako enpresei nola eraginen dien aztertzeko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00089. Galdera, industria-inbertsioko programa berriari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00090. Galdera, trastelekuen okupazio ilegalaren auziari heltzeko neurriei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00091. Galdera, Nafarroako industriaren eta ekonomiaren beste sektore batzuetarako lan-mahaiak sortzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00092. Galdera, Nafarroako industriarako enplegu-plan berria sinatzeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00093. Galdera, soldata-arrakala desagerrarazteko jarduketei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00094. Galdera, industria-inbertsioko programari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 19/2025 ebazpena, otsailaren 20koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00031 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan (18. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 20/2025 ebazpena, otsailaren 20koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00032 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan (18. or.).

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	2/20



A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00001. Foru-lege proiektua, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duen foru-lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Foru-lege proiektu hori 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3 d) artikuluari eginiko gehitzeko zuzenketa

Puntu bat gehituko da:

Entitate pribatuen kasuan, irabazi-asmokoak izan edo ez, beharrezkoa izan da SODENA enpresa publikoak eginiko ekonomia- eta finantza-bideragarritasunari buruzko txostena izatea.

Zioak: 3 d) artikulua arabera, ATENAK inbertsioak egiten ahalko ditu edo maileguak, abalak nahiz bestelako tresna batzuen bidez babesten ahalko ditu entitate publikoek egindako inbertsioak, bai eta entitate pribatuek egindakoak ere, irabazi-asmokoak izan edo ez.

Gure ustez, ATENA ez da finantza- eta ekonomia-arriskuko jardueratan espezializatutako tresna bat. Nafarroako Gobernuak baduenez enpresen finantza-arriskuko jardueratan espezializatuta dagoen enpresa publiko bat, uste dugu horrek kreditatu behako lukeela teknikoki ATENAK jardueratan finantzatzea entitate pribatuen kasuan.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3 e) artikuluari eginiko gehitzeko zuzenketa

Puntu bat gehituko da:

Betiere, Energia-trantsizioaren Agentziak merkaturatuko ditu autokontsumoko instalazio propioen nahiz foru administrazioak edo toki-entitateek parte hartutako soberakinak. Azken kasu horretan, ATENAREN eta toki-entitatearen arteko lankidetzaz hitzarmen baten bidez formalizatuko da.

Zioak: Foru-lege proiektuaren 3 e) artikulua arabera, ATENAREN esku dago "argindarra lehia askeko araubidean komertzializatzeko merkataritza-sozietateak sortu edo horietan parte hartzea; autokontsumoko instalazioen energia-soberakin salmenta kudeatzea; kontsumoari buruzko datuak bildu eta aztertzea; eta parte hartzea eskariaren kudeaketa adimentsuan eta sistema elektrikoaren beste zerbitzu batzuetan".

Gure ustez, administrazio publiko baten jardueratan instalazio propioetako eta, izatekotan ere, toki-entitateetako, bereak zein parte hartutakoak izan, energia elektrikoaren soberakinak merkaturatzera mugatu behar da.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3 h) artikuluari eginiko gehitzeko zuzenketa

Puntu bat gehituko da:

Finantzaketa-sistema berritzaileen kasuan, beharrezkoa izan da SODENA enpresa publi-

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	3/20



koak txostena egitea ekonomia- eta finantza-bideragarritasunari buruz.

Zioak: 3 h) artikulua arabera, ATENAK neurriak ezarri eta kudeatzen ahalko ditu, baita finantzaketa-sistema berritzaileak ere.

Gure ustez, ATENA ez da finantza- eta ekonomia-arriskuko jardueratan espezializatutako tresna bat. Nafarroako Gobernuak baduenez enpresen finantza-arriskuko jardueratan espezializatuta dagoen enpresa publiko bat, uste dugu horrek kreditatu behako lukeela teknikoki ATENAK jarduera finantzatzea entitate pribatuen kasuan.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3 u) artikulua kentzeko zuzenketa

Artikulu hori kentzea.

Zioak: Klima-aldaketaren legearen 6.2 artikulua bidez sortu zen Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia, eta lehenbiziko xedapen gehigarriak ezartzen du agentzia arautzeko foru-lege proiektua igorriko diola Gobernuak Parlamentuari, eta horren bidez zehaztuko dela agentziak zer eginkizun dauzkan.

Halere, 3 u) artikuluan ezartzen da eginkizun horien barruan sartzen ahal dela estatutuetan jasotako "beste edozein jarduera" eta bere helburuak lortzeko beharrezkoa den "beste edozein".

Artikulu horrek edukirik gabe uzten du zuzentzen ari garen ATENARI buruzko foru-lege proiektua bera.

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYYEQCJQE64	Página	4/20



E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00006. Interpelazioa, industriaren arloko politikari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako interpelazioa, industriaren arloko politikari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, Nafarroak industriaren arloko politikari buruzko interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroan, aspalditik, industria gure ongizatearen oinarrietako bat da. Kezkaz ikusten dugu Nafarroako industriaren datuak okerrera egiten ari direla.


Joera kezkagarri horrek erakusten du Gobernu honek azken urteotan baliatutako politikak ez direla nahi bezalako emaitzarik ematen ari.

Hori dela-eta, Gobernuak joera negatibo hori arintze aldera hartuko dituen neurriei buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	5/20



11-25/ITP-00007. Interpelazioa, Nafarroa Markari buruzko estrategiari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako interpelazioa, Nafarroa Markari buruzko estrategiari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau egiten du, 2025eko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran erantzun dadin.

Jakina denez, erkidego baten markaren irudi eta proiektio nazionala eta internazionala –Nafarroarena, kasu– funtsezkoak dira inbertsioak, enplegua eta turismoa erakartzeko.

Horrenbestez, honako interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari, azal dezan zer estrategia darabilen Nafarroa Marka –edo, Gobernuaren turismo-kanpainetan hala deitu baitzaio, "Nafarroa efektua"– dela-eta.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/MOC-00005. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismo moko Batzordeak 2025eko otsailaren 19an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean

haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat".

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	6/20



11-25/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako gazteriaren kultur ekoizpena bultzatzen, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2025eko otsailaren 24an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako gazteriaren kultur ekoizpena bultzatzen, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita Mozioa 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00016. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premia-tzen baita abian jar ditzan LGTBIfobiaren aurkako kanpainak, eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak LGTBIfobiaren aurka egiten dituen kanpainak sar ditzan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua edo Nafarroako Gobernua federazioekin edo klubekin lankidetzan aritzen den ikusgarritasun handiko kirol lehiaketetan eta ekitaldietan

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2025eko otsailaren 24an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premia-tzen baita abian jar ditzan LGTBIfobiaren aurkako kanpainak, eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak LGTBIfobiaren aurka egiten dituen kanpainak sar ditzan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua edo Nafarroako Gobernua federazioekin edo klubekin lankidetzan aritzen den ikusgarritasun handiko kirol lehiaketetan eta ekitaldietan. Mozioa 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	7/20



F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00078. Galdera, Sarrigurenen 4.000 etxebizitza publiko eraikitzeari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Sarrigurenen 4.000 etxebizitza publiko eraikitzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen

denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Etxebizitzaren auzia da Nafarroak duen erronka sozial eta ekonomiko nagusietako bat, bereziki Iruñerrian, non eskaintza baino nabarmen handiagoa baita eskaria. Nafarroako Gobernuko lehendakariak egin duen iragarpena –hau da, Sarrigurenen 4.000 etxebizitza publiko eraikiko direla– inpaktu handiko ekimena izanen da Nafarroan etxebizitzaren arloan. Proiektuaren handitasuna, 50 hektarea hartuko baititu, erronka bat da hirigintzaren aldetik nahiz finantzaketaren edo exekuzioaren aldetik dakarren plangintzari begira.

Zer onura ekonomiko eta sozial aurreikusten da lortuko dela nafarrentzat Sarrigurenen 4.000 etxebizitza publiko horiek eraikita?

Iruñean, 2025eko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	8/20



11-25/POR-00079. Galdera, La Manada izenez ezagutzen den kasuko zigorrak murrizteko eskaria dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako galdera, La Manada izenez ezagutzen den kasuko zigorrak murrizteko eskaria dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehen

lehendakariorde eta Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilari Félix Taberna Monzón jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin dugu foru gobernuak idazki bat aurkeztu duela Nafarroako Auzitegiko Bigarren Atalean, La Manada izenez ezagutzen den kasuko zigorrak berrikustearen aurka dagoela adierazteko (Nafarroako Gobernua herri-akusazio modura dago pertsonatuta prozeduran). Aurkakotza-idazki hori aurkeztean, Nafarroako Gobernua adierazten ari da zein den bere jarrera zigorrak murrizteari dagokionez, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren arabera.

Hori ikusita, Geroa Bain honako hau jakin nahi dugu: zein da Nafarroako Gobernuak aurkakotza-idazki horretan zigorrak murrizteko eskariari dagokionez daukan jarrera?

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-25/POR-00080. Galdera, Nafarroan pobrezari buruzko datuak zuzentzeko neurriei buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Nafarroan pobrezari buruzko datuak zuzentzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu honek zer neurri hartuko du gure erki-degoan pobrezari buruzko datuak zuzentzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	9/20



11-25/POR-00081. Galdera, Nafarroako ubide fotovoltaikoari buruzkoa*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako ubide fotovoltaikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen Nafarroako Ubide Fotovoltaikoa izeneko proiektua, zeinaren helburua baita Nafarroako Ubidea iparraldetik hegoalderaino eguzki-plakez estaltzea?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/POR-00082. Galdera, Eraikuntzari aplikatutako Robotika eta Industrializazio Zentro Nazionalari buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Eraikuntzari aplikatutako Robotika eta Industrializazio Zentro Nazionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer epe darabil gogoan Eraikuntzari aplikatutako Robotika eta Industrializazio Zentro Nazionala abian jartzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	10/20



11-25/POR-00083. Galdera, Maristetako etxebizitza babestuen prezioari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Maristetako etxebizitza babestuen prezioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Etxebizitzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak nola lagunduko die Maristetako etxebizitza babestuen 108 hartzaileei epe jakin batean lor dezaten euren etxebizitzak eskuratzeko eskubidea BOE eta PTEentzat araututako prezioan eta, hortaz, Arrasate talde sustatzaileak ezarri nahi dizkien gainkostuak ordaindu behar izanik gabe?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/POR-00084. Galdera, 2025-2028 aldirako Enplegu Planari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, 2025-2028 aldirako Enplegu Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide

den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Herenegun, 2025-2028 aldirako Enplegu Plana sinatu zuten Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Elkarteak eta UGT eta CCOO sindikatuek. Foru parlamentarien elkartean honako hau jaki nahi dugu: Zeintzuk izanen dira, zehazki, planean jasotako aurrekontuarekin egingen diren proiektuak eta jarduketak eta zein izanen da Nafarroako enpresarentzako produkzio-inbertsioan izanen duen inpaktu erreala?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	11/20



11-25/POR-00085. Galdera, beharrezkoa den energia-trantsizioa zertan den jakiteko

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, beharrezkoa den energia-trantsizioa zertan den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak 2025eko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du gure erkidegoan energia berde, merke eta demokratikoko etorkizun bat bermatuko badugu egin beharreko trantsizio energetikoaren egoerari buruz?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/POR-00086. Galdera, lan-istripuen kopurua murrizteko politikak egite aldera Gobernuak daukan konpromisoari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, lan-istripuen kopurua murrizteko politikak egite aldera Gobernuak daukan konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Gobernuak lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024an, Nafarroa izan zen Estatuan laneko heriotza-tasarik okerrena izan zuen erkidegoa.

Foru-erkidegoan, iaz, 22 pertsona hil ziren guztira bere lanpostuan, aurreko urtean hildakoen kopurua bikoiztuta, 2023an 11 pertsona hil baitziren. Nafarroan, gainera, 23.685 lan-istripu gertatu ziren iaz; horietatik 67, larriak.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Elkarteak, UGTk eta CCOOk 2025tik 2028ra bitarteko Enplegu Plana sinatu zuten otsailaren 18an.

Inbertsioa 132,96 milioikoa izanen da aurtengoa, 135,92 milioikoa 2026an, 140,63koa 2027an eta 143,24koa, berriz, 2028an. Arloka, planaren aurrekontuaren zatirik handiena -276,18 milioi- lehiakortasuna sustatzeko eta enpresa txiki eta ertainen hazkunderako izanen da.

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	12/20



Bigarren aurrekonturik handiena duen arloa enplegu-politika aktiboena da, 269,1 milioi. Bestalde, 4,8 milioi inbertituko dira istripu-tasa murrizteko, eta beste 2,7 milioi, berriz, genero-zeharkakotasunean eta lan-harremanetan.

Zertan gauzatuko da la-istripuen kopurua murrizteko politikak egite aldera Gobernuak daukan konpromisoa?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/POR-00087. Galdera, Estatu Batuek nekazaritzako produktuei muga-zergak jartzeari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Estatu Batuek nekazaritzako produktuei muga-zergak jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2025eko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Estatu Batuek nekazaritzako produktuei jarriko omen dizkieten muga-zergak ikusita, zer neurri ari zarete prestatzen ondorio kaltegarriak leuntzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	13/20



11-25/POR-00088. Galdera, Estatu Batuetako muga-zergek Nafarroako enpresei nola eraginen dien aztertze lan-mahai bat sortzeari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Estatu Batuetako muga-zergek Nafarroako enpresei nola eraginen dien aztertze lan-mahai bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujok Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den astean jakin genuen Donald Trump-ek muga-zergak ezarri nahi dizkiola automozioaren sektoreari. Nafarroak azkar erreakzionatu zuen, muga-zerga horiek gure enpresetan izan dezaketen eragina aztertze lan-mahai bat eratu dela iragarri baitzen. Nafarroak Estatu Batuekiko zer balantza komertzial dauka eta zer lan egiten du departamentuak lan-mahai horretan?

Iruñean, 2025eko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00089. Galdera, industria-inbertsioko programa berriari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, industria-inbertsioko programa berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ahozko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuo lehendakariari, ahoz erantzun dezan:

Zertan datza Nafarroako Gobernuak iragarri duen industria-inbertsioko programa berria eta zertan lagun dezake enpresen ihesari aurre egiten?

Iruñean, 2025eko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	14/20



11-25/POR-00090. Galdera, trastelekuen okupazio ilegalaren auziari heltzeko neurriei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, trastelekuen okupazio ilegalaren auziari heltzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer ari da egiten Iruñeko zenbait auzotan, Buztintxurin adibidez, trastelekuen okupazio ilegalaren auziari eta horrek eragiten dituen arazoei heltzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/POR-00091. Galdera, Nafarroako industriaren eta ekonomiaren beste sektore batzuetarako lan-mahaiak sortzeari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako industriaren eta ekonomiaren beste sektore batzuetarako lan-mahaiak sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den otsailaren 20an, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak iragarri zuen lan-mahai bat eratuko dela Nafarroan, aztertzeke Estatu Batuetako lehendakari Donald Trumpek autogintzaren sektoreari muga-zergak igotzeak zer eragin izanen duen.

Hori dela-eta: Departamentuak ba al du asmorik ekimena Nafarroako industriaren eta ekonomiaren beste sektore batzuetara zabaltzeko? Foru horretan ukitutako enpresetako langileen ordezkariak ere parte hartuko al dute?

Iruñean, 2025eko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	15/20



11-25/POR-00092. Galdera, Nafarroako industriarako enplegu-plan berria sinatzeari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako industriarako enplegu-plan berria sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Enplegu-plan berria sinatzeak zer ekarriko dio Nafarroako industriari?

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-25/POR-00093. Galdera, soldata-arrakala desagerrarazteko jarduketei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, soldata-arrakala desagerrarazteko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak 2025eko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Espanian 2011z geroztik urtero otsailaren 22an ospatzen den Soldata-berdintasunaren Europako Egunaren kariatara berriz ikusi ahal izan dugu Nafarroa dela soldata-arrakalarik handiena duten erkidegoetan bigarrena.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak zer egingen du Nafarroan dagoen soldata-arrakala desagere dadin?

Iruñean, 2025eko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	16/20



11-25/POR-00094. Galdera, industria-inbertsioko programari buruzkoa*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, industria-inbertsioko programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri, aurrekontu eta denbora-muga izanen du lehendakariak iragan ostiralean iragarri zuen industria-inbertsioko programak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	17/20



Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 19/2025 ebazpena, otsailaren 20koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00031 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Ángel Ansa Echegaray jaunak eskatu du Nafarroako Gobernuari eskatzeko idatziz erantzun beharreko galderari erantzun diezaion, hura erantzuteko epea igaro ondoren, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak foru parlamentari-ekin galderei erantzuteko duen epea igaro ondoren, Erregelamenduko 215.1 artikulua- ren arabera, ERABAKI DUT:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea 15 egune-ko epean erantzun dezan Legebiltzar honen Mahaiak izapidetutako galdera, datu-tratamendu-ko zentroak paratzeari buruzkoa (11-25/PES-00031).

2. Erabaki hau Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Ángel Ansa Echegaray jaunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 20/2025 ebazpena, otsailaren 20koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00032 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Ángel Ansa Echegaray jaunak eskatu du Nafarroako Gobernuari eskatzeko idatziz erantzun beharreko galderari erantzun diezaion, hura erantzuteko epea igaro ondoren, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak foru parlamentari-ekin galderei erantzuteko duen epea igaro ondoren, Erregelamenduko 215.1 artikulua- ren arabera, ERABAKI DUT:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea 15 egune-ko epean erantzun dezan Legebiltzar honen Mahaiak izapidetutako galdera, Aragoi, Madril- en edo Extremaduran datu-zentroak paratu edo paratu-ko dituzten enpresa teknologikoei buruzkoa (11-25/PES-00032).

2. Erabaki hau Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Ángel Ansa Echegaray jaunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.


Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYEQCJQE64	Página	18/20



CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYYEQCJQE64	Página	19/20



CSV (Código de Verificación Segura)	IVVH2CBCPLZCFENYYEQCJQE64	Fecha	25/02/2025 12:23:01
Normativa	Este documento incorpora firma electrónica reconocida de acuerdo a la ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza	Validez del documento	Original
Firmado por	MIGUEL ANGEL IRIARTE CILVETI (Firma incrustada)		
Url de verificación	https://sede.parlamentodenavarra.es/verifirma/code/IVVH2CBCPLZCFENYYEQCJQE64	Página	20/20

